

Iparraldeko oihartzunak”, “Euskal Herria beti!” eta “Izena eta izana”. Azken hilabeteotan hiru lan argitaratu ditu, lehena Amalur-Baita argitaletxearen eskutik eta beste biak Zortziko argitaletxearekin. Urtetan bildutakoaren printzak suma daitezke bere lan guztietan, hain ondo ezagutzen duen eta hain sakon maite duen bere herriaren ingurukoak guztiak.

Hiru liburuak denbora paretsuan gertatu diren arren, urte luzetako lanaren emaitza dira, Joseba Aurkenerenak dioen bezala, «pittaka-pittaka» egingakoak. Beste bat ere argitaratzeko bidean da, “Euskal Herria beti!” liburuaren bigarren partea; “Iparra galdu gabe”. Baina nahiago du denbora tarte bat utzi liburu eta liburu artean, «batek bestea ez dezan zapaldu». Baina bistan da Aurkenerenaren ekoizpena oparoa dela.

Lotura estua duzu euskararekin.

1956an sortua naiz. Aita donostiarra nuen, eta, ama, ataundarra. Etxean beti ezagutu izan dut euskal giroa, baina giro hori ukatua zen. Ukazioa zen nagusi eta eskolara joatean, euskara galdu nuen. Etxean amak-eta euskaraz egiten zidaten, baina nik erdaraz erantzuten nuen. Hamalau urterekin kontzientzia hartu nuenean, amari erran nion euskara berreskuratu nahi nuela eta idazten eta irakurtzen ikasi nahi nuela. Orduan amak eskola klandestino bat topatu zidan. Fraileena zen eta dotrina ematen zutela erraten zuten. Baina hori eman beharrean, euskalduntzen eta alfabetatzen aritzen ziren. Hiru hilabetez egon nintzen bertan,

harik eta poliziek gure irakaslea eraman zuten arte. Denbora tarte horretan euskararen egitura zein zen ikusteko aukera izan nuen. Ordutik aurrera, autodidakta izan naizela esan daiteke. Gerora, unibertsitatean ikasle nintzela, beste talde bat antolatu genuen alfabetatzeko eta han ere aritu nintzen.

Euskara irakasle izan zara ofizioz.

Txikitandik ezagutu dut euskararen ukazioa. Ukazio horretan sortu eta hazi nintzen, gure belaunaldian denei gertatu bezala. EUTGn Historia ikasi nuen. Nire zaletasun handienak betidanik izan dira Euskal Herria, euskara, historia, antropologia, etnografia... eta horiek nire afizio izatetik ofizio izatera pasatu ziren. Erretreta hartu bitartean, euskara irakaslea izan naiz. Baina beti saiatu izan naiz ematen ez bakarrik hizkuntza eta mintzaira, baita horrekin lotuta dagoen arima ere. Hor atzean badago herri bat, zaharra eta berria, iraun nahi duena eta bizi nahi duena, eta hori guztia gazteei transmititzen saiatu naiz.

Mitologiarekin lotutako istorioak beti maitatu izan ditut, nire ama ataundarra zelako eta baserrian txikitatik ezagutu izan ditudalako. Gure amonak gauero kontatzen zizkigun. Nire bi zaletasunak, euskara eta historia, izan dira nire bizitza profesionalaren ardatzak.

Bere herriarekin maiteminduta dagoen pertsona bat sumatzen da zure lanetan.

Maiteminduta nago bizitzaz, izadiaz, herri naturalez... “Herri naturalak” deitzen ditut gurea bezalako herriak, bizi nahi

«Beti saiatu izan naiz ikasleei euskara ez ezik, euskararen arima ere irakasten, haientzat ez dadin izan latin berri bat»

JOSEBA AURKENERENA BARANDIARAN

IRAKASLEA ETA IDAZLEA

Joan den abendutik hona, bere hiru lanek ikusi dute argia, guztiak hainbeste maite duen Euskal Herriaren ertz desberdinei estu lotuak. Lapurtartutako gipuzkoarrak ondo ezagutzen ditu bazterrak, horietan bizitakoak eta gertatutakoak.

Amagoia Mujika Telleria

dutenak. Eta ez beste estatu artifizioz horiek, gure herrien gainean mugak jarri dituztenak. Horiek ez ditut batere maite eta guztiz artifizioz, zelofanezkoak, zanpatzaileak eta inolako aberastasunik gabeak ikusten ditut. Horien barruan dauden herriak, denak maite ditut. Baina ni euskalduna naiz eta nirea dena landu behar dut. Beste horiek ere nire sentitzen ditut eta dirua izango banu hortik zehar ibiliko nintzen bidaiatzen, baina ez dut hainbeste dirurik eta horregatik ibiltzen naiz Euskal Herrian barna; hemengo herriak, jendeak, ekitaldiak, kulturarekin eta mintzairarekin lotutako ekintzak... ezagutzen.

“Iparraldeko oihartzunak” liburuan horrelakoak bildu ditut, nagusiki Iparraldearekin lotuak. Bilduma bateko seigarrena da eta datorren urterako zazpigarrena daukat prestatuta. Hogeita bost urte daramat bilduma horrekin.

Zein helburu dauka bilduma horrek?

Bi helburu nagusi; lehena, Iparraldeari begira eta, bigarrena, Hegoaldeari begira.

Lapurdin bizi naiz duela hogeita bost urte; nire semeak hemengoak dira, lagun aunitz ere bai, nire egunerokoa hemengo da... eta ikusten dut zer-nolako morrontza daukaten frantsesarekin. Beren izen-abizenak euskaraz idazteko bakarrik sekulako gerlak dituzte, inposatzen dieten bezala idatzi behar dituzte.

Frantsesek sekulako konplexua erein dute beren azpian dauden herrietan, ez bakarrik Iparraldean, baita Britainian, Korsikan... Gutxitasun konplexu izugarria erein dute. Iruditzen zaie mundu honetan zerbait bada, hori Frantzia eta

frantsesa dela, beren hizkuntza, literatura... Ba ez, ez da horrela. Frantsesen literatura ez da apatxeen edo euskaldunen literatura baino handiagoa edota hobeia, horiek bezalakoa baizik. Izan ere, herri baten sinismenak eta bizipenak kontatzeko tresna da literatura eta herri bakoitzak bere moduan egiten du. Hartara, hizkuntza frantsesa ez da apatxeen mintzaira baino gehiago, ezta inondik ere. Baina frantsesei iruditzen zaie baietz, eta zerbait garrantzitsua egitekotan frantsesez egin behar dela. Horregatik liburu horiekin harrotasun hori zirikatu nahi dut, konturatu daitezen frantsesik gabe Iparraldea badela, Euskal Herria badela, eta ez diegula ezer zor Frantziari eta frantse-sari.

Eta Hegoaldeari begira ere egiten dut bilduma hau. Izan ere, Hegoaldeko askoren begietara Iparraldea erabat folklorikoa da, beren ikurrina eta pastoralekin. Eta ez dira konturatzen gure herriaren zati garrantzitsua dela eta eguneroko borroka duela bizitzeko, irauteko eta euskara eta euskal kultura aitzina ateratzeko. Iparraldeak bere garrantzia dauka eta ez dago euskal naziorik Iparralderik gabe, denak puzzle beraren zatiak gara. Hegoaldekoen ezagupen triste hori zabaltzea eta kontzientzia sortzea da helburua.

«Euskal Herria beti!» liburuan ertz oso desberdinak ukitzen dituzu.

Atal desberdinak dira. Irakaslea naiz eta beti saiatu izan naiz ikasleei euskara ez ezik, euskararen arima ere irakasten, euskara ez dadin izan haientzat latin berri bat, hilda dagoen edo irakaslearekin bakarrik hitz egiteko balio duen



Guillaume FAUVEAU

zerbait. Horretarako Euskal Herria zer izan den, zer den eta etorkizunera begira zein proiektu duen jakin behar dute.

Normalean, Euskal Herriaz aritzean pertsonaia berdintsuak aipatzen dira, Gipuzkoarekin eta Bizkaiarekin oso lotuak. Nik hain ezagunak ez direnak aipatzen ditut nire liburuan; Durangoko heretikoak, Tuterako juduak, Migel Servet tuterarra –odol zirkulazioa aurkitu zuena–, Aita Mari donostiarra, Buñuel –36ko gerran sarraskitu zutena–, Raimundo Lanas jotaria, Dionisio Barandiaran eta Gaur Taldea, Baztandarren Biltzarra, Kataluniako segalariak, euskal astronautak... Horiek ere merezi dute gure historian azaltzea, gure historiaren zati izan direlako.

Euskal astronauten inguruko kapitulua, bitxia.

Bi euskal astronauta izan dira, bata miarriztarra, eta, bestea, gasteiztarra. Nik sinisten dut izan dugula lehena, badugula gure oraina eta etorkizun librea izango dugula mende honetan. Mende honetan zazpi herrialdeak hartuko dituen euskal errepublika librea izango dugula sinistuta nago. Nola ez dakit, baina sortuko da. Oraingoz euskal astronautak Europako agentziarekin joan dira, baina hurrengoak euskal errepublikaren ontzietan joango dira espaziora. Ez da zientzia fikzioa, sinisten dudana proiektuaren eta geroaren parte baizik.

Diasporaren inguruko atala badago liburuan.

Gure eskoletan, bai Iparraldean eta bai Hegoaldean, arrotzek inposatutako curriculum-a da nagusi. Iparraldean

frantsesena, eta, Hegoaldean, espainolena. Hartara, gure gazteek Batxilergoa bukatzen dutenean ezer gutxi dakite gure literaturaz, gure kulturaz, gure historiaz... Gero ez naiz batere harritzen erdarara jo-tzea. Ez al diegu ba hori era-kusten eskolan eta gizartean? Hori zapalkuntza edo mende-rakuntza handi bat da. Eta gu-re historia ez badugu ezagu-tzen, are gutxiago diasporan izan diren euskaldunena. Hori erakutsi beharra dago, onera-ko eta txarrerako. Horrekin ez dut esan nahi euskaldunak munduko herririk onena gare-nik, baina herri bat gara, eta badugu gure historia, ona eta txarra, eta hori erakutsi behar dugu.

Eta hori egiten saiatzen zara. Bai horixe. Potosiko euskaldu-nak altxatu eta espainolen kontra nola borrokatu ziren kontatzen dut; Joana Ines Gu-rutzeakoaren euskal sustraiak aipatzen ditut; euskaldunok izan dugun enperadore baka-rrari buruz hitz egiten dut, Mexikoko enperadore Agustin Iturbide Aranburu; Gabino Gaintza Guatemalako inde-pendentziaren aitzindari izan-dakoa aipatzen dut, bihotzik gabeko militarra; Machu Pic-churen hondakinak topatu zi-tuen Agustin Lizarraga; Ga-briela Mistral, euskal odola zuena eta dirua eman zuena 36ko gerrako haurren alde; Margot Duhalde pilotu fama-tua...

Atsotitzak eta aho-korapiloak ere bildu dituzu. Bai. Horiek denak nire ikaslee-kin erabiltzen nituen euskara-ren aberastasuna erakusteko.

Euskal irainak ere bildu ditu-zu.

Behin, Euskal Herrian sortuta-ko politikari espainol bati en-tzun nion euskarak ez zuela ezertarako balio, ez zeukala ez irainik ez ezer. Nola esan dai-teke hori? Justu formakuntza bat egiten ari nintzen beste irakasle batzuekin eta lan bat egitea proposatu ziguten. Co-vadonga Garciaren, Jon Ze-laiaren eta hiruron artean irain bilduma bat egin ge-nuen. Euskal Herriko mapa banatu eta herriz herri ibili ginen erabiltzen ziren irainak jasotzen. Hiruzpalau hilabe-tean 3.000 bildu genituen eta “Irainka” liburuan plazaratu genituen. Orduz geroztik ja-rraitu izan dut entzuten ni-tuen irainak nire aldetik bil-tzen. Gehienbat, ikasleei emateko. Nire ustez hori oso garrantzitsua da, ikasleei eus-kararen tresnak ematea.

Oraingoz, zure azken libu-rua, «Izena eta izana». Pentsatzen dut, lehen erran dudan bezala, herri honek lortuko duela bere egitura po-litiko, sozial eta ekonomiko independentea mende hone-tan. Denok lagundu behar du-gu hori etor dakigun, bakoit-zak ahal duen neurrian. Bide horretan, uste dut oso garran-tzitsua direla gure nortasuna eta horrekin lotuta dauden izenak eta abizenak. Abizenak ongi idatzi beharko genituz-ke. Horretarako, sortuko den egiazko Eusko Jaurilaritza ho-rrek lege bat atera beharko du, esanez, euskal abizenak Euskaltzaindiak erraten duen bezala idatzi behar direla. Eta norbaitek ez badu nahi, bete dezala paper bat eta eska de-zala grafia aldatzeko. Baina, orain, alderantziz gertatzen da. Norbaitek bere abizena euskal grafiarekin idatzi nahi badu, bera mugitu behar da.

Izenei dagokionez, uste dut izena oso garrantzitsua dela gure nortasunean. Izenak gu-re izana egiten duela neurri batean. Izendegietan lan han-dia egin da mende hauetan. Lehena, 1898an Sabino Ara-nak egindakoa, oso famatua izan dena. Berak formulatu zuen gizonen eta emakumeen arteko desberdintasuna eta arrakasta izan du izendegi horrek. Denak ez dira, hala ere, berak asmatutakoak. Hori lehen urratsa izan zen, urrats handia. Geroztik etorri dira beste urrats garrantzitsu zen-bait; esaterako, Euskaltzain-diak atera dituen izendegiak. Ikerlan garrantzitsuak egin dituzte gainera. Gero, Xarles Bidegainek 1999an “Izende-gia” izeneko liburua atera zuen. Biziki ona da eta sekula-ko lana egin du. Seaskaren izendegiak ere merezi du ai-patzea, lege arau bihurtu bai-ta euskaldunen artean, bai Iparraldean eta bai Hegoalde-an.

Liburu horiek erabili ditut, baita beste izendegi txikiago batzuk ere. Duela 30 urte hasi nintzen lan honekin. Beti ari-tu naiz izenak bilatzen, sor-tzen zirenak jasotzen... Azken urteotan izen mordoa sortu da, bereziki euskal toponi-miari lotutakoak eta baita mi-tologiaren ingurukoak ere. Izenak biltzen jardun naiz az-ken hamarkadotan eta horren emaitza da liburua.

Azken urteotan emakumez-koen eta gizonezkoen ize-nen arteko bereizketak ze-resana eman du. Espainiako Gobernuak nola-baiteko xantaia egin dio Eus-kaltzaindiari, gizonezkoen eta emakumezkoen izenak berei-zi behar zirela esanez, espai-nolek beren Konstituzioan ho-

ri erraten dutelako. Euskal-tzaindiak amen egin behar izan du, ez horretan sinisten zuelako, aitzina egiteko baizik. Nik ez dut sinisten Hego mutila dela eta Hegoa neska; edo Haritz mutila dela eta Ha-ritza neska. Euskaldunok badi-tugu bestelako arauak, batez ere toponimiarekin eta natu-rarekin loturikoak.

Zure liburuan bereizita eman dituzu. Bai, bereizi beharra daude izen asko kristau tradizioetik dato-zelako eta horiek bereizi beha-rra dagoelako. Modu alfabeti-koan ordenatu ditut eta izena nondik jaso izan den zehaztu dut. Eta izen asko bi tokietan daude, gizonezkoetan eta emakumezkoetan. Sarreran zehaztu dudanez, euskal toponimiarekin eta li-teraturarekin loturiko izen den-denak emakumezkoen-tzat zein gizonezkoentzat izan daitezke. Txindoki ez da ez gi-zonena ez emakumeena. Gero, badira onartu beharreko zen-bait nahasmen. Gure mitolo-gian bai eguzkia eta bai ilargia emakumezkoak dira. Herri la-tinoetan eguzkia gizonezkoa da, eta, ilargia, emakumezkoa. Baina Euskal Herrian, ez. Eus-kaldunok maite dugun guztia emea da; ama, hizkuntza, lu-rra, aberria... Hori gure animis-mo zaharrarekin lotuta dago. Baina, eguzkira bueltatuz, gaur egun zabaldua dago Eki mutila edo neska dela, eta, Eki-ñe, neska. Eta Eguzki neska edo mutila dela, eta, Eguzkiñe, neska. Benetan Eguzkik eta Ekik nesken izena beharko lu-kete, gure mitologiari begira. Baina herriak bere bidea egin du, eta, herriak erabaki badu gizonezkoentzat Eki erabiltzea, hori onartu beharra dago. He-rriak erabakitzen du.



«Nik sinisten dut izan dugula lehena, badugula gure oraina eta etorkizun libre izango dugula mende honetan. Mende honetan zazpi herrialdeak hartuko dituen euskal errepublika libre izango dugula sinistuta nago. Nola ez dakit, baina sortuko da»

«Benetan Eguzkik eta Ekik nesken izena beharko lukete, gure mitologiari begira. Baina herriak bere bidea egin du, eta, herriak erabaki badu gizonezkoentzat Eki erabiltzea, hori onartu beharra dago. Herriak erabakitzen du»